

koktela

Martini lehorra, James Bonden koktela

Osagaiak: gina (5 cl), bermut lehorra (1 cl), izotz puska eta oliba bat.

James Bond filmetako pertsonaiarentzat martini lehorra da koktel onetan onena. Makina bat filmetan ikusi dugu 007 agentea martini lehorra edaten. Izan ere, James Bonden sortzaileari, Ian Fleming

idazleari, asko gustatzen zitzaion martini lehorra, eta zaletasun hori bere fikziozko pertsonaian islatu zuen.

Martini lehor bat prestatzeko, gina eta bermuta bota behar ditugu koktelontzian. Ondo nahastu, eta gero oso hotza dagoen edalontzi batera botako ditugu. Apaingarri moduan oliba bat ipiniko dugu. Martini lehorra aperitif gisa hartzea bereziki gomendagarria da.



EGUNKARIA

hainbat film labur izango dira ikusgai, Arriaga antzokian, Bilborocken, Multicinesen eta Guggenheimen. Basauri eta Getxoko kultur etxeetan ere jaialdi horretako filmak izango dira ikusgai.

'Pecata minuta'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Santutxuko Sorgintxulo gaztetxean.

'Delicatessen'. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Bidebarrieta liburutegian.

DONOSTIA. **'Ekintzen ispilu gardena'.** Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Contadores kultur etxean.

GORLIZ. **'El hombre sin sombra'.** Bihar, arratsaldeko 17:30ean, udal erakusketa aretoan.

IRUN. **'Myanmar: el paraíso escondido'.** Gaur, arratsaldeko 19:30ean, Amaia Kultur Zentroan. zinemaren.

'Me case con un extraño'. Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Amaia Kultur Zentroan.

IRUÑEA. **'Euskarazko film laburren II lehiaketa'.** Proposamenak Iruñeko Karrikiri elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira abenduaren 15a bitartean (Tel: 948222589).

bestelakoak

AZKOITIA. **Napi merenderoaren III. urtemuga festa.** Gaur, gaueko 00:00etan, Napi merenderoan. DJ Axular eta DJ Toki ariko dira.

BILBO. **'Karidadeko benta' ikuskizuna.** Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Kalderapeko kultugunean, Jon Maia bertsoariaren eskutik.

BERA. **'Bera, inguruari begirada' gidaliburuaren aurkezpena.** Gaur, goizeko 10:30ean, Illeketako erroetan.

BERGARA. **'Ez adarrak jo' emanaldia.** Bihar, arratsaldeko 17:00etan, udal pilotalekuan, Tutik eta Clowns pailazoaren eskutik.

DONOSTIA. **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.** Gaur, goizeko 10:00etan, Latxartegi aretoan.

EIBAR. **Herri bazkaria.** Larunbatean, arratsaldeko 14:00etan, herriko tabernan.

HONDARRIBIA. **'El libro negro de Intxaurrondo' liburuaren aurkezpena.** Gaur, Muara kultur elkartearen.

IRUN. **Helduentzako ipuin kontalariak.** Gaur, arratsaldeko

musika

Jon Gonzalo | **DONOSTIA**

Mikel Telleria musikaria batetik bestera dabil azkenaldian. Lehengo asteen Bartzelonan eman zuen kontzertua, eta gaur Arrasaten ariko da. Ez du astialdirako aukera handirik, baina gurekin hitz egiteko ez du inolako trabarik jarri.

■ Kontzertu askotxo eman dituzu azkenaldian. Pozik izango zara, ezta?

Bai, oso pozik gaude. Uste baino kontzertu gehiago ematen ari gara, eta hori, noski, ona da edozein musikarientzat. Aurrerantzean ere horrela jarraitzea espero dugu.

■ Nolanahi ere, hasiera batean gauzak ez ziren hain errazak izango.

Nire musikarekiko zaletasuna haurra nintzenekoa da. Gitarra jotzen gaztetan hasi nintzen, eta poliki-poliki zenbait kanta sortu nituen. 1999an, berriz, nire lehengo diskoa grabatzeko aukera izan nuen, *Deklarazioa* izenekoa.

■ Zer-nolako harrera izan zuen disko horrek?

Diskoa kaleratu genuenetik

20:00etan, Amaia Kultur Zentroan, Oihulari Klown taldearen eskutik.

Literatur seminarioa. Gaur, arratsaldeko 17:30ean, udal liburutegian, Carlos de Agustin jaunaren eskutik.

ORDIZIA. **Poxpolo eta Mokolo pailazoak.** Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Garagartza plazan.

erakusketak

BAIONA. **'Gure iratiak 20 urte'.** Gure Irratiaren egoitzan, abenduaren 30a bitartean.

BILBO. **'Pedro Txillidaren margolanak'.** Abenduaren 3a bitartean, Deustuko CMDn.

DONOSTIA. **'Margoak eta ilustrazioak'.** Azaroaren 12tik 30a arte, Eva Garcesen lanak Loiola

Kultur Etxean izango dira ikusgai.

'Instalaciones'. Azaroaren 1etik 30era, Pamen Pereiraren lana, Altxerri Galerian.

Lopez Herrera. Azaroaren 1etik 30era, olio lanak ikusgai Etxeberria Galerian.

'On egin dagizula' bitxi diseinatzaileen lanak. Abenduaren 11 arte, Istra dendan, Kursaallean.

MIARRITZE. **'Arts plastiques'.** Abenduaren 2a bitartean, Coliseoan. Celine Cabrolen margolanak eta eskulturak.


LESACA. **Kepa Pikabea, euskal preso politikoaren margoak.** Abenduaren 2a arte, Arrano kultur elkartearen izango da ikusgai.

PASAI. **Mensuren margolanak.** Abenduaren 2a

'Mikel Telleria' Gaur, Arrasateko Itzala tabernan (20:30ean).

MIKEL TELLERIA MUSIKARIA

«Datorren urtean disko rockero bat kaleratuko dut»



EGUNKARIA

kontzertu asko eman ditugu, eta horrek esan nahi du disko horretan eskaintzen genuena jendearen gustukoa dela. Nolanahi ere, disko berria prestatzen hasi gara dagoeneko.

■ Disko berria prestatzen ari zaretela esan duzu. Zer nolakoa izango da?

Estilo aldetik, guztiz bestelakoa. Lehen diskoa guztiz melodikoa zen, eta oraingo honetan estiloa aldatzea erabaki dugu. Hurrengo hau disko rockeroa izango da. Era guztietako musika entzuten dut, eta hori nire diskotik islatzea ona dela uste dut. Alegia, ez dudala nahi musika estilo baten menpe egotea.

■ Noizko izango da kalean lan berri hori?

Bigarren diskoa datorren urtean kaleratu nahi dut, baina ez diot neure buruari data zehatzik jarri. Gauzak lasai eta arreta handiz egitea gustatzen zait, jendaurrean aritzeko duintasun handiko produktu bat eskaini behar dela uste baitut. Horregatik, lasai hartuko dut bigarren diskoarena. Bien bitartean, gaurko kontzertua bezalako emanaldiak eskaintzen jarraituko dut.

bitartean, Pasai Antxoko kultur etxean.

TOLOSA. **Nazioarteko Txontxongilo jaialdiaren inguruko erakusketa.** Gaur, arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak bitartean, Aranburu jauregian.

ZARAUZ. **IX. Nazioarteko Argazki Mostra.** Azaroaren 9tik abenduaren 9ra, Torre Luzean.

ZUMARRAGA. **Kamerungo eskularen erakusketa.** Azaroaren 23tik, abenduaren 2ra, Irate Etxean. Astelehenetik ostiralera 18:30etik, 21:00etara.

ikastaroak

BILBO. **Tango ikastaroak.** Tangoaren oinarriko pausak ikasteko, Garua elkartearen eskutik.

Uda garaian, Café Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiralero eta hileroko lehen larunbatetan, 23:00etatik aurrera.

DONOSTIA. **'El arte de gestionar los sentimientos'.** Sumendi elkartearen egingo den ikastaroa. Orduetgia: 10:00etatik 14:00ra eta 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago honako telefono honetan: 943431456.

DONOSTIA. **'Autodefensa para mujeres'.** Azaroaren 26tik 30a bitartean egingo da ikastaro hau El Campillo aretoan. Orduetgia ondorengo hau izango da: 19:30etatik 21:30etara. Izena eman nahi duzuen guztiok aipatu aretoan egin behako duzue.

IRUÑEA. **Eguzki Irrati librean parte hartzeko deialdia.**

Irratian kolaboratu edo parte hartu nahi duten guziendako. Astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 21:00etara Nabarreria kaleko 6. atariko 1. etxebizitzan galdetu.

PASAI. **Alkartasuna txiki dantza taldearen ikastaroa.**

Izena eman nahi duzuen guztiok Pasai Antxoko eskola publikoetako 3. solairura joan behar duzue.

lehiaketak

BERGARA. **Amodiozko Gutunen X. Berrigara Lehiaketa.** Lanak eta egilearen datuak honako helbide honetara bidali beharko dira, urtarilaren 9a baino lehen: Amodiozko Gutunen X. Berrigara Lehiaketa. Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g. 20570 Bergara.